



**Gatikako udala**  
Bizkaia

**2011ko ekainaren 11a**  
**UDALA ERATZEKO ETA**  
**ALKATEA AUKERATZEKO**  
**OSOKO BILKURA**

**DEIALDIA: LEHENA**  
**HASIERA ORDUA: 11.00**  
**AMAIERA ORDUA: 11.15**

**Bertaratutakoak:**

- 1- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2- Leixuri Arrizabalaga Arruza
- 3- Maite Lekanda Bilbao
- 4- Unai Arrizabalaga Urrutia
- 5- Miguel Angel Larrazabal Zurbanobeascoechea
- 6- Unai Arruza Elorduy
- 7- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga
- 8- Vanesa Alvarez Zorrilla
- 9- Gotzon Arrieta Rementeria

Idazkaria: Elena M. Gonzalez.

**Aztergaiak:**

1. Adineko mahaia eratzea.
2. Udala eratzea.
3. Alkatea aukeratzea.
4. 2011ko ekainaren 15era eguneratutako diru-kontaketa eta udal-ondarearen inbentariaen kontu emotea.



## Gatikako udala

Bizkaia

### Esan-eginak eta erabagiak.

#### 1. Adineko mahaia eratzea.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. Artikuluak dinoanari jarraituz, zinegotzi-egiaztagutunak Idazkaritza Orokorrean jaso ostean, bertaratutako zinegotzietan zein dan gazteena eta zein zaharrena aztertu da, zinegotzi bi horrek adineko mahaia osatu daien, udal-idazkariagaz batera.

#### Erabagia

Adineko mahaia holan osatzea:

Zinegotzirik zaharrena: Gotzon Arrieta.

Zinegotzirik gazteena: Maite Lekanda.

Idazkaria: Elena M. González.

#### 2. Udala eratzea.

Adineko mahaiak zinegotzi-egiaztagutunak aztertu dauz, bai eta eskualdeko Hauteskunde batzordeak udaletxera bialdutako ziurtagiriak be, zinegotziegiaztagutunak eta ziurtagiriak bat datozala biaeztatzeko.

Horren ondotik, eta legediak ezartzen dauazan baldintzak bete ondoren, zinegotziek euren karguez jabetu dira.

#### Erabagia:

Zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoela, adineko mahaiak Udara eratutzat jo dau.

#### 3. Alkatea aukeratzea.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. Artikuluari jarraiturik, adineko mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazo dauz:

- Zinegotzi diran zerrendaburuak dira hautagai.
- Lehen bozketan, zinegotzi guztien (baita bertaratu bakoak be) gehiengo osoa lortzen dauena izango da alkate.



## Gatikako udala

Bizkaia

- Holan gertatzen ez bada, udal-hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru dan zinegotzia izango da alkate.
- Gehien bozkatutako zerrenda bat baino gehiago bada, zozketaz ataratzen dan zerrendako buru dan zinegotzia izango da alkate.

Hola bada, Jesus Maria Fullaondo Alzibar zinegotzia (EAJ-PNV talde politikokoa) Miguel Angel Larrazabal Zurbanobeascoechea (GTI taldekoa) eta Vanesa Alvarez Zorrilla (BILDU talde politikokoa) zerrendaburu izanda, bozketari ekin jako, eta hona bakoitzak lortutako botoak:

Jesus Maria Fullaondo Alzibar: 4 boto.

Miguel Angel Larrazabal Zurbanobeascoechea: 3 boto.

Vanesa Alvarez Zorrilla: 2 boto.

Erabagia:

Bozketak erakusten dauenez, Jesus Maria Fullaondo Alzibar da alkatea.

Ostean, Jesus Maria Fullaondo jaunak onartu egin dau alkate izatea. Holan, bada, udalbatza aurrean dauela, agindu be agindu dau kargu hori beteko dauela, kargu horrek beragaz dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiakaz. Horrenbestez, Jesus Maria Fullaondo jaunak hartu egin dau alkate-kargua.

Jesus Maria Fullaondok hauxe esan dau:

“EAJ-PNVren izenean, esan behar dot ohore handia dala niretzako jasotzea makila hau adierazten duenagatik: datorren 4 urte honetan Gatikaka ibili beharko dauen bidetik gidatzeko ardura. Eta ardura hau izan dogu ere azkeneko 4 urte honetan, beraz, badakigu zer dan hori.

Badakigu, ere, gure herri maitea bide honetik gidatzeko ardura izanarrean, bide hau bakarrik ezin dogula egin, baizik eta beharrezkoa da danon artean egitea. Beraz, eskatzen dot hemen dagozen beste udal ordezkarien laguntza, laguntza danon artean bide hau atseginago egiteko, eta, ere, danon artean gainditutako ibilaldi honetan aurkituko doguzan ostopoak. Azkenean, onuradun bakarra izango da hori, hemen gauden ordezkari guztiok lan egiteko prest gaudenagaitik: GATIKA”

Ostean, Vanesak hartu du hitza, eta hauxe esan dau:

“Zorionak guztioi, zuen ahaleginari esker posible egin duzuelako Bildu koalizioa **gaur hemen egotea**.



## Gatikako udala

Bizkaia

Euskal Herrian aro berri batean sarturik gaude, aldaketaren garaian. Ilusio eta itxaropenez kargaturik dago giroa. **Politika egiteko beste eredu bat martxan jartzera gatoz.**

Pozez gainezka eta ardura osoz hartzen dugu zuen mandatua eta prest gaude **oposizioak** suposatzen duen ardura handiari behar bezala erantzuteko. Zuek, herritarrek, aldaketaren giltza Bildu koalizioaren esku utzi duzue eta gaurtik aurrera zeregin honi helduko diogu, aldaketa politiko, soziala eta instituzionala hitzetatik ekintzetara eramateko.

Lehentasunezko erronka, hemen eta Euskal Herria osoan, egoera demokratikoa lortzea izango da eta horri begira lan egingo **dugu udal honetan ere**, guztion eskubide zibil eta politikoak onartuak izan daitezzen. Horregatik bortxa adierazpen oro behin betikoz eta baldintzarik gabe desagertu dadin eskatzen dugu, baita mehatxuak, presioak, jazarpenak, atxiloketak eta torturak ere. **Gaurkoan ezin ditugu ahaztu oraindik ere politika egiteko eskubidea urratua dutenak ezta gaurko eguna urrutian ospatzen egongo direnak ere.**

Gure udala herri honen normalkuntza politikoan lehen mailako eragilea **izateko lan egingo dugu** eta gure ekarpena egingo dugu zabaldutako aukera historikoa gauzatzeko helburuarekin eta gaur behatz puntekin ukitzen ari garen konponbidea, etorkizuneko Euskal Herria eraikitzeke oinarria izan dadin.

Honekin batera, udala eraldatzea izango da gure erronka, Bildu koalizioa osatzen dugunon proiektua, abertzalea, ezkertiarra eta soberanista, herritarren esku jarritz eta beste herri bat eraikitzea posible dela erakutsiz.

Bildu koalizioaren proiektua herritar guztien ongizatea ziurtatzeari begira garatuko dugu eta, era berean, egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, kaltetuenen eta behar gehien dituztenen mesedetan arituko gara.

Guztiantzat egingo dugu lan eta guztiokin, parte hartze demokratiko eta zabala bultzatu nahi dugulako datozen urteetan, elkarrekin eztabaidatuz, guztion parte hartzeaz erabakiz eta horretarako bitartekoak jarritz.

Herrian txertatutako udala nahi dugu eta herritar aktiboak nahi ditugu, erabakitzaileak, eta horren aldeko apustu irmoa egingo dugu.



## Gatikako udala

Bizkaia

Beraz, beste urrats bat egitea dagokigu orain: bide hori elkarrekin burutzea, gazteekin, hirugarren adinekoekin, kultur eta kirol elkarteekin, herrigintzan eta auzolanean aritzeko prest zaudeten guztiekin. **Guztiontzat zabalik izango ditugu gure ate guztiak eta horrela lan egiteko konpromezua hartzen dugu, zuekin, herritarrekin elkarlanean.**

Amaitzeko, gaur gure artean nagusi den ilusio eta itxaropenaren gainean egin dugu **orain arteko** bidaia eder hau, baina gaurko egunean hasten dugun ibilbide honetan, konpromisoaren eta parte hartze kolektiboaren osagaiak ezinbestekoak izango zaizkigu emaitzak benetan emankorrek izan daitezen. Hori da eskatzen dizuedana.

Besterik gabe, mila esker eta zorionak guztioi.”

Eta bukatzeko, Gotzonek eskatu nahi du argiketa bat, egunkari batzuetan erabili den joko zikinagatik, PNV-ri alkatetza kentzea asmoa zegoela esanagatik. Hori guztiz gezurra dela esan du.

Alkateak esan dio hori ez dagoela bere eskuetan eta beraiek ez dituztela datuak. Beste norbaiteri eskatu beharko diola argiketa.

4. 2011ko ekainaren 10era eguneratutako diru-kontaketa eta udal-ondarearen inbentariaeren kontu emotea. Ez dute ezer esateko.

Bilkura amaituta, agiri hau egin dot lehendakariaren oneritxiagaz, eztabaidatu eta erabagitakoa jasotzeko.

Grabatuta: WS\_10200.WMA CD-an.